

Euskaraldia, gozoa bezain goxoa

Azaroaren 20an hasiko da ariketa soziala. Azken egunetan Andoaingo eta Urrietako dozenaka lagun Euskaraldiarekin bat egiten ari dira

2020 **RAKS**
web irratia prentsa iturriak kazetaritza
telebista hizkera komunikazioa youtuberra bloga
trioa Internet publikitate erreportajeak
albisteak digitala estiloa sareak

XXXII.
RIKARDO ARREGI
KAZETARITZA SARIA



XABIER LETE GOGOAN
bere heriotzaren 10. urteurrenaren atarian

Eguna: Azaroak 26, osteguna

Ordua: Ilunabarreko zazpiak (19:00 h.)

Lekua: Andoain, Bastero Kulturgunea



Parte-hartzaile guztiak dira *belarriprest* ezinbestean. Hasteko eta behin, ulertzea ezinbesteko baldintza delako Euskaraldiak jokatu nahi lukeen partidan, eta gutxieneko langa ere badelako, edozein hizkuntza komunitatetan. AIURRI

Euskara erdigunera ekartzeko ariketa

Euskaraldiaren bigarren edizioak *ahobizi* eta *belarriprest* rolen doitzea ekarri du, baita *Arigune* deritzon kontzeptu berria ere. Hala, bi lagunen arteko harremana ez ezik, taldeko jarduna ere ariketa sozialaren erdigunean jarri nahi izan da

Garbiñe Ubeda ANDOAIN

Arian-arian finkatzen dira ekimenak, edizioz edizio eta errepikatzearen poderioz, pausoak progresiboki indartuz eta neurriko ekarpenak eginez, aldiko. Lehen urratsak ematen ari den umetxoa da Euskaraldia, artean bigarren urtea ere bete ez duena. Munduratu berria izanik, asko du ikasteko. Asko du pro-

batzeko, ontzeko eta zuzentzeko, baina era berean, baita ezin eskuzabalago emateko ere, baldin eta bere eginkizunari tinko eusten badio; baldin eta, hizkuntza-ohiturak modu kolektiboan aldatu nahi horretan, tokian tokiko testuinguruan txertatzen asmatuko badu, Euskal Herriko bazter eta arlo guztietara hedatzeko sortu zenez.

Helburuak eta oinarriek bere horretan darraite bigarren edizio honetan: hiztunen arteko harremana erdigunera ekarririk, *belarriprest* eta *ahobizi* rolen praktikak erroto nahi dira, eta horrez gain, lankidetzara areagotu. Hasieran ezarritako ezaugarrien doitzeak, izatekotan, herritarrek hautatu behar dituzten bi rol horiei egin zaizkie. Edo hobeki

esan, rolen gaineko pertzepzioari. Uste zabalduenaren arabera, euskaraz ongi egiteko gauza denari automatikoki jarri izan baitzaio *ahobizi* txapa. Alabaina, ekimenak jasotzen duen bezala, kontua ez da “norberak zenbat dakien, egunerokoan zer egingo duen baizik”. Bestela esanda, gakoa jarrera da, portaera da, Euskaraldiak beteko dituen hamabost egunetan hartuko den konpromisoa, ez gaitasuna.

Denak *belarriprest*

Parte-hartzaile guztiak dira *belarriprest* ezinbestean. Hasteko eta behin, ulertzea ezinbesteko baldintza delako Euskaraldiak jokatu nahi lukeen partidan, eta gutxieneko langa ere badelako, edozein hizkuntza komunitatetan. *Belarriprest* horietarik batzuei, berriz, konpromiso markatuagoa hartuko dutelako, ariketari hedadura nabariagoa emango diotelako, ohiko hizkuntza jokaerak astindu, erositasuna urratu, nagiak atera eta bideak zabalduko dituztelako, *ahobizi* izena hartuko dute.

Ahobiziari ausart jokatzeko adorea estimatzen zaio, euskararen erabileraren optimizazioa bururaino eramateko erronka bereganatzen baitu, ariketak irauten duen tarte mugatuan: ulertzen dutenei uneoro egingo die euskaraz, eta modu berean zuzenduko dizkie lehen hitzak ezezagunei. Horrez gain, solaskideak euskaraz egiten ez dienean eutsi egin beharko dio, eta hitz egiteko gaitasun mugatua dute nekin pazientziaz jokatu, hizkera moldatu eta komunikazioa erraztu, erdarara lerratze joeraren aurrean amore eman gabe. Euskararen erabilera arrera daraman motorra da *ahobizia*.

Euskararen konpasean, elkarrekin dantzan

Ahobizien eta *belarripresten* arteko interakzioa dantza baten antzean defini liteke. *Ahobizien* jokaera urratzailea da, pauso eta mugimendua markatzen ditu. *Belarriprestarena*, berriz, jarraitzailea da, besteak daraman bideari segitzen dio. Elkarren beharra dute (bestela ez baitago dantzarik), eta elkar elikatzen dute.

Onurak argiak dira. *Ahobiziek*, beste *ahobiziz* eta *belarriprestez* inguraturik daudela, erraz eusten diote beren misioari. Egoez ez die aparteko ahaleginik eskatzen. Badakite inguruan dauden guztiek ulertzen dutela. Badakite, haien jokaera eta grina ongi ikusita daudela, balioetsi egiten direla, zilegitasun osoa dutela. *Belarriprestak*, *ahobizien* harremanetan, kutsatu egiten dira, motibazioak maila bat gora egingo die, euskaraz egiteko premia naturalki ernatzen zaie. Definizioak bilatzen hasita, hizkuntza simetriarako joera esaten zaio horri, eta mekanismo sozio-afektibo unibertsala da: erosoago sentitzen omen gara hitzutunok, hizkuntza berean hitz egiten dugunean.

Belarriprestari, hortaz, hizkuntz simetriara jotzeko grina sortzen dio jardunak. Batzuek besteek baino gehiago egingo dute euskaraz, mintzatzeko gaitasunaren arabera betiere, baina gehienek handitu egingo dute euskararen erabilera. *Belarri-*

**LEHEN URRATSAK
EMATEN
ARI DEN
UMETXOA DA
EUSKARALDIA**

ondarreta ikastetxea
ANDOAIN

ANDOAIN
**LEIZARAN
INSTITUTUA**

EUSKARALDIA

**2020ko azaroaren 20tik
abenduarien 4ra**

prest askok, batik bat gaitasun handikoek, elkarriketak euskaraz abiatzeko ekimena hartuko dute, eta *ahobizi* bailiran jokatu dute, inork eskatu gabe. Halaxe jartzen da abian euskararen erabileraren zikloa. Jokamolde horrek denboran irautea da gakoa. Horri eusteak finkatzen du hizkuntza-ohitura berria.

Buruz burukoak bai, taldeak ere bai

2018ko Euskaraldiak norbanakoen arteko aurrez aurreko ahozko elkarriketetan eragiteko gonbita luzatu zuen. Aurten go edizioa bestelako elkarriketetara eta harremanetara zabalduko da, eta euskaraz aritzeko aukera ematen duten gune, egoera eta espazioak identifikatzera eramango ditu hiztunak, toki horietan ere, ohiturak aldatzeko hazia erein dezaten. Ezin baita albora utzi egunero ordu luzeak ematen direla espazio handiagoetan, esate baterako lantokietan, edota bestelako multzotan. Ariketa espazio kolektibora eramateko asmoa *Arigunea* deituriko kontzeptuaz lagunduta dator.

Ariguneak, hortaz, euskaraz lasai aritzeko gune, espazio eta taldeak izango dira, eta aurrez identifikatzea, kide guztien adostasuna lortzea eta elkarrekin euskaraz jarduteko modua bilatzea eskatzen da, lehenik eta behin. Aurten bereziki, entitateen babespean sortutakoei jarriko zaie fokua. Kasu horietan, entitateak berak funtzio garrantzitsua izango du: euskaraz aritzeko aukera ematen duten gune horiek babestea, zilegitasuna ematea, akuilatzea, ikusgarri egitea. Era guztietako entitateei erreparatuko zaie. Alegia, administrazio publiko, merkataritza zentro, gizarte mugimendu antolatua, saltoki, kirol talde, enpresa nahiz elkarte orori.

Pandemiaren ondorioz aurtengo edizioa bitxia izanagatik ere, datozen urteei begira, euskarazko *Ariguneak* sortzen, identifikatzen eta zabaltzen joatea da erronka.

Kultura soziolinguistiko berria

Honenbestez, kultura soziolinguistiko berria dakar Euskaraldiak. Praktika jakin batzuk ez ezik, pentsamolde lerro bat

ere badu, zenbait mezu motzen bidez laburbil litekeena. Hasteko eta behin, hizkuntza-ohiturak aldatzea oso zaila dela dioen ustea desaktibatu behar da. Horren ordez, hizkuntza-ohiturak aldatzeko baldintza sozialak hartu behar dira ahotan. Bestalde, euskaraz egin nahi duenak ele biko elkarriketei eusteko prest egon behar du. Halaber, ulermen unibertsalaren beharra ezarri beharko litzateke lehentasuntzat eta ezezagunei lehen hitzak euskaraz egiteak ohikoa izan beharko luke. Gainera, euskaldunek euskaldun hartzaileri euskaraz egitea praktika arrunt bihurtu beharko litzateke. Azkenik, helduek dute haur eta gazteen eredu izatearen ardura, baita hizkuntzari dagokionez ere. Norberak egiten ez duena ezin besteei eskatu.

Aipagarri, azkenik, aldibereko komunikazio modu guztiak direla aintzat hartzen direnak, eta horren baitan dago eremu digitaletako jarduna ere, bereziki Whatsapp, Skype, antzeko aplikazioek eta sare sozialek ahalbidetzen dutena.



Aldi bereko komunikazio modu guztiak direla aintzat hartzen direnak: Whatsapp, Skype, antzeko aplikazioak eta sare sozialak. AIURRI

EUSKARALDIA

ANDOAIN

AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

www.andoainikastola.eus

¿QUÉ ES EUSKARALDIA?

Euskaraldia es un ejercicio colectivo social para aumentar el uso del euskera entre la población. Del 20 de noviembre al 4 de diciembre de este año, Euskaraldia ha propuesto hablar más euskera, con más gente y en más ocasiones. Podrá participar en esta edición toda la población mayor de 16 años que sea capaz de entender euskera.

El objetivo principal de Euskaraldia sigue siendo el mismo que en la edición anterior: ayudar a l@s ciudadan@s que quieren dar un paso más con el euskera: pasar del apoyo a la acción.

¿QUIÉN VA A PARTICIPAR?

Participarán las personas mayores de 16 años que quieran dar un paso más en el uso del euskera. Al tratarse de un ejercicio práctico, deben ser capaces de entender el euskera y, dependiendo de cómo se realice el ejercicio, elegirán entre dos roles que se identificarán mediante una chapa.



Ahobizi: "me comunico siempre en euskera con aquellas personas que lo entienden. Cuando no tengo la certeza de si la otra persona sabe euskera, pronuncio las primeras palabras en euskera y, si la otra persona lo entiende, continúo hablando en la misma lengua. Aunque me contesten en castellano, estoy dispuesto ha seguir hablando en euskera si me entienden".



Belarriprest: "decidiré en función de mis capacidades y posibilidades cuándo y con quién hablar en euskera. No utilizaré siempre el euskera con tod@s l@s que lo entienden, pero explícitamente, pediré que hable conmigo en euskera a todo el que lo sepa".

UN PASO MÁS: DEL COMPROMISO INDIVIDUAL AL COLECTIVO

Las personas asumirán el compromiso como Ahobizi y Belarriprest. Pero este año se quiere pasar de la responsabilidad individual a la responsabilidad colectiva. Para ello se han creado los ARIGUNES.



ARIGUNES: Los Arigunes son un espacio para hablar tranquilamente en euskera. En ellos se asegura la posibilidad de usar el euskera, ya sea entre los miembros del grupo o en el servicio de atención al cliente. Muchos participantes harán el ejercicio en grupo en todo tipo de empresas, asociaciones e instituciones públicas. Estos espacios estarán identificados con un objeto llamativo.

¡QUIERO PARTICIPAR EN EUSKARALDIA!

Para ello tienes que dar tu nombre en la página web izenematea.euskaraldia.eus.

¿QUÉ HAGO SI TODAVIA NO SÉ SUFICIENTE EUSKERA COMO PARA ENTENDER UNA CONVERSACIÓN SENCILLA?

- Sabes más euskera de lo que crees. Utiliza lo que sepas, por poco que sea.
- Eres imprescindible en la normalización del uso del euskera. Observa los hábitos lingüísticos de tu entorno, seguro que puedes mejorar la comunicación con tus familiares, amig@s o compañer@s de trabajo.
- Toma un papel activo en defensa y promoción de la lengua.
- Te esperamos en la siguiente edición.

Baliatu
dezagun
etxera
eramateko
janaria
eskaintzen
diguten
ostalarien
aukera



Aterpe jatetxea

Goikoplaza 7
943 11 79 86



Oloki taberna

Goikoplaza 4
943 30 06 03



Hiru jatetxea

Juan Bautista Erro
943 59 36 00




Iturri

Bazkardo plaza 8
943 24 42 72



Pizzeria 4'EM

Agustin Leiza 5
688 85 87 73



Etkez-etxeko zerbitzua



**Gaztañaga
Sagardotegia**

(sagardo botilak)

Buruntza auzoa

630 12 25 62

Etkez-etxeko zerbitzua



Amama Klaudia

Zumea plaza

943 03 16 15




**Mizpiradi
sagardotegia**

Leizotz 14

943 59 39 54

Etkez-etxeko zerbitzua



**Anqara doner
kebab**

Kaleberria, 12

943 30 42 89

Etkez-etxeko zerbitzua



ANDOAINGO UDALA



Belarriprest eta ahobizi txapak jaso behar dira

Datozen egunetan Urratsen, Zasan eta Aiurriko egoitzan eskuratu daitezke

Erredakzioa ANDOAIN

Txapak jasotzeko ordutegia honakoa da:

Urrats inprimategia:

- Astelehenetik ostegunera: 09:30-13:30 eta 16:00-19:30.
- Ostirala: 09:30-13:30.
- Larunbata: 09:30-13:00.

Zasa:

- Azaroak 18, 19, eta 20: 17:30-20:00.
- Azaroak 21: 10:30-13:30.

Aiurriko ataria:

- Azaroak 18: 17:00-19:00

Oraindik izena eman ez dutenei oharra: Kale Nagusiko Zasan izena eman eta txapa jaso daiteke oraindik.

"Eraginkortasuna izatea norberaren esku dago"

JOXEMI ARANBURU ANDOAINGO AEK EUSKALTEGIA

"Belarriprest modura parte hartuko dutenak guretzat guztiz arruntak dira eta ez ditugu beste maila batean kokatzen"

Mikel Arberas ANDOAIN

Arigunea aurtengo Euskaraldiko berrikuntza nagusia da.

Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatzeko helburua duenez, *Ariguneak* kaleko espazioetatik jarleku konkretuetara eramateko modu bat da. Komertzioetan, enpresetan eta erakundeetan *Ariguneak* sortu eta hizkuntza ohiturak aldatzea lortuz gero, dudarik gabe aurrerapauso garrantzitsua izango da.

Aurtengo egoera ikusirik, hausnarketa sakonagoa egiteko baliokidigu Euskaraldiak?

Horrelako ekimenak jendearengana iristeko moduak dira, baina eraginkortasuna norberaren eskuetan dagoen zerbait da. Dudarik gabe, eragina eduki, edukiko du. Gauza bat da kaleko elkarrizketak eta jendearen hizkuntza ohiturak kalean aldatzea; eta beste gauza bat, espazio edo gune batzuetan, enpresen kasuan, iristea kosta egiten den arloan eragitea. Bertako langileek ohiturak aldatzeko ardura hartzen badute eraginkorra izan daiteke.

Garrantzitsua iruditzen zaizu herritarrek horrelako ekimenetan parte hartzea?

Dudarik gabe. Azken finean, gutxi batzuek ekimen zabal bat martxan jarri gero, baina he-



Joxemi Aranburu Andoaingo AEK-ko kidea da. AIURRI

rritarren sostegurik ez balute ezingo zen aurrera eraman, zeren eta herritarrek hartu behar dute protagonismoa. Ezinbestean jendearen parte hartzea derri gorrezkoa da.

Ez-ohiko egoera honek nola eragin dezake Euskaraldian?

Eragina erabatekoa da. Pasa den astean eduki genuen batzordeko bilera eta, egia esan, ziurgabetasunean gaude, ez baitakigu zer egin ahal izango dugun. Duela bi urteko Euskaraldian ekimen ugari egin genituen eta jende asko gerturatu zen; esa-

terako, hamaikakoaren aurkezpenean edota Goikoplazan egin zen festan, baina orain ezin da horrelakorik egin. Ez dakigu zer egin, mementoko egoerara egokituko gara. Oraingoan, Zasa-ko lokala martxan jarri dugu eta txapak banatzeko guneak zehaztu ditugu.

Askoren ustez Belarriprest bigarren mailako rol bat da, zer diozu?

Ez dugu beldurrik eduki behar *belarriprest* izateko, zintzoak izaten saiatu behar dugu geure buruarekin; alegia, gauza bat da euskaraz komunikatzeko

gaitasuna izatea, baina kontua da zure eguneroko praktikan erdarara jotzen baduzu, ez duzula beldurrik eduki behar *belarriprest* rola hartzeko. Norberak jakin behar du euskararekiko konpromezua zenbaterainokoa den. AEK-ko kide izanda, *belarriprestak* guretzat guztiz arruntak dira eta ez ditugu beste maila batean kokatzen. Euskaldunok askotan ez dugu euskarara erabiltzen, parekoak erdarara jotzen duelako. Ohitura horiek aldatu nahi dira. Ez dut gogoratzen zifra zehatza, baina Andoainen *ahobiziak* askoz ere gehiago ziren; hala ere, seguru nago zorrotzagoak izanez gero *ahobizi* asko *belarriprest* izango zirela.

Oro har, nola ikusten duzu Andoainen Euskaraldia?

Ez ditugu oraindik datu zehatzak. Izan ere, ikastetxeetako datuak ez ditugu jaso, beraz, ezin da gauza askorik esan. Horrez gain, pentsatzen dut, bizi dugun egoeratik datuak apalagoak izango direla. Egia da ere, memento honetatik aurrera hasiko direla izen-emateak, hau da, Euskaraldia gerturatu ahala, giroa berotzen hasiko da. Aurkekoan ere antzerako zerbait pasa zen.

Esanak esan, egoera honetan ez da batere erraza jendearengana iristea. Ezin dira mahaia jarri kaleetan, ezin ditugu bolaluma eta paperak herritarren esku utzi etab. Gauzak horrela, herritarrek konpromezua hartu behar dute Internet bitartez izena emateko; adibidez, adineko jendearentzat ez da lan erraza. *Ariguneen* kasuan, berriz, datuak onak dira, Andoain 80tik gora eman dute izena. Nire ustez pausu garrantzitsua da hori.

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

aek

ANDOAIN
Plazaola, 2.

943 59 17 04 - andoain@aec.eus

euskara praktikoa

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

EUSKARALDIA



"Euskaraldiak ohitura aldaketa ekar dezake"

GARAZI JAUREGI AHOBIZI • ANDOAIN

"Hizkuntza ohiturak zailtzen jarri behar dira eta aldatzen hasteko pausuak emateko aukera interesgarria izan daiteke"

Mikel Arberas ANDOAIN

Zergatik da garrantzitsua Euskaraldia?

Aurreko Euskaldien harira egin ziren ikerketetatik ondorioztatu zen kuantitatiboki gehiago hitz egin zela euskaraz, eta aurrerapauso bat izan zela hizkuntzaren normalizaziorantz eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ahaleginean. Gauzak horrela, garrantzitsua iruditzen zait.

Norberaren esperientziatik ere oso aberasgarria izan zen aurreko Euskaraldia, beraz, berriro ere parte hartzea erabaki dut. Hizkuntza ohiturei buelta bat emateko ariketa interesgarria da, esaterako, saltoki handietara, zerbitzuetara edota merkatalguneetara joatean lehen hitza euskaraz esatea; pausu garrantzitsua da.

Zer helarazten du Euskaraldiak?

Komunitate baten zati zaren sententzia sortzen da. Gogoan dut Iruñara joan nintzela Euskaraldia egiten ari zirenean, eta kaletik ikusten nituen txapa jantzita zuten herritarrek, oso pozgarria zen. Komunitate sententzia berezia helarazten zuen. Hizkuntza ohiturak zailtzen jarri behar dira, eta aldatzen hasteko pausuak emateko aukera interesgarria izan daiteke.



Garazi Jauregi. AIURRI

Aurtengo egoera ikusirik, jendeak berdin berdin parte hartuko duela uste al duzu?

Ez dakigu egoera honetan zer jazoko den eta zein arau berri ezarriko dizkiguten. Orduan, zein egoeratan egongo garen pentsatzea zaila denez, ez da erraza aurreikustea parte hartzea handia izango den. Hala ere, nahi dut itxaropena eduki. Esaterako, gaur egun, prentsaurerako eta bideokonferentzi asko jasotzen ditugu, batez ere, osasungintza arlotik; eta esan genezake, apur bat ohitu garela mezu garrantzitsuak gazteleraz jasotzen. Gustatuko litzaidake

horrelako kasuetatik hasita, euskarak garrantzia hartzea eta lehen hitzak geure hizkuntzan egitea. Horrez gain, iruditzen zait gune birtualetan Euskaraldiak bere aletxoak jar dezakeela. Askotan espazio hori ahaztuta geratzen dela sumatzen dut.

Aurtengo berrikuntza nagusia Ariguneak izango dira.

Ahobizi eta Belarriprest izatetik erakundeetara eta elkarteetara igaro da euskaraz hitz egiteko ardura. Egia esan, oso interesgarria da, erakunde oso bat euskaraz hitz egiteko konpremezua hartu izana. Zera esan nahi dut, ez dela norbanakoa soilik, komunitatean egingo dut ariketa izango dela.

Euskaraldiak egoera soziolinguistikoa eragiten duela uste duzu?

Urte hauetan egin diren ikerketek argi adierazi dute, Euskaraldiak norbanakoen egoera soziolinguistikoa eragina eduki duela. Ez dakit epe luzera hizkuntza ohitura horien aldaketek iraun duten, interesgarria litzateke jakitea. Euskaraldia egin den egunetan eragina handia izan da; nire ingurua euskaldun izaerakoa denez ez nuen aldaketa handia nabaritu, baina, nire gunetik atera nintzenean memento horretan bai sumatu nuela aldaketa.

"Aurtengoan berdin-berdin parte hartuko dute herritarrek"

AITOR IBARGUREN AHOBIZI • ANDOAIN

"Lan esparrura zabaltzea aurrerapauso bikaina izan daiteke"

Mikel Arberas ANDOAIN

Pasa den euskaraldian parte hartu zenuen? Zein rol aukeratu zenuen?

Aurreko Euskaraldian ahobizi gisa parte hartu nuen eta aurturten ere halaxe izango naiz. Inguru euskalduna izanik, rol egokiena dela iruditzen baitzait.

Zergatik da garrantzitsua?

Horrelako egunetan eta asteetan fokua jartzea garrantzitsua da, izan ere, herritar askok Euskaraldian parte hartuko ez dutela adierazten dute, urte osoan zehar euskaraz aritzen direlako. Arrazoiak dute, baina egiten den esfortzua egun edo aste bereizi batzuetan euskaraz egiteko txalogarria eta aberasgarria da, izan euskaldun berri, zaharra edo ez dakiena. Egun horietan, fokua euskararen gainean dago.

Zer ematen du Euskaraldiak?


Euskaraldiak ematen duen gauzetako bat da, euskaraz hitz egiteko arrazoiak ez dutenei bultzada bat ematen zaiela, data konkretu horietan behintzat, euskaraz aritzeko. Esaterako, lagunekin, senideekin, lanean edo merkatalguneetan.

Aurtengo egoera ikusirik, parte hartze handia lortuko al da?

Nire ustez herritarrek berdin-berdin parte hartuko dute. Egia da ere, egoera ez dela batere egokia eta ez zaiola behar bezain besteko zabalkundea eman, baina jendearen parte hartzea ez dut zailtzen jarriko.

Ariguneak izango ditugu aurturten.

Berrikuntza guztiak dira ongi etorriak. Euskara sustatzeko eta



Aitor Ibarguren. AIURRI

bultzatzeko saiakera gehiago egitea benetan mirezgarria eta lagungarria da. Gainera, euskararen erabilera lan esparrura zabaltzea aurrerapauso bikaina izan daitekeela pentsatzen dut. **Euskaraldiak egoera soziolinguistikoa eragiten duela uste duzu?** Ikerketa batzuetan irakurri nuen Euskaraldiak eragin oso baikorra eduki zuela hizkuntza ohituretan. Datuak, ikerketak eta zenbakiak alde batera utzita, nire esperientziatik baieztatu dezaket, Euskaraldiak inguruan eragina eduki zuela eta euskararen erabilera areagotu zuela.

"AURREKO EDIZIOAK INGURUAN ERAGINA IZAN ZUEN, ETA ERABILERA AREAGOTU EGIN ZEN"

Kutxabank
EUSKARALDIArekin

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra





EUSKARALDIA

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

AHOBIZI:

Euskaraz ulertzen duten guztiakin euskaraz egingo duzu. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakizunean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko duzu. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea izango da.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari: Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusitako eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

Elkarrietzeta elebidunetan, euskaraz: Komunikazioa bermatuta dagoenetan, eutsi euskarari.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Eutsi euskarari!:

Ekin (lehen hitza euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).



www.euskaraldia.eus



EUSKARALDIA

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

BELARRIPREST:

Hiztun guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu eta zeuk ere horrela egingo duzu nahi bestetan. Jarrera horrek euskararen ateak zabalduko dizkiz eta denon artean erabilera handituko dugu. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari: Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

Adierazi euskararekiko prestutasuna: Jakinarazi solaskideei euskara jaso nahi duzula eta, zeuk ere, nahi eta ahal beste erabili. Zure euskara da euskararik onena.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gaintitu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Egin lekua euskarari:

Adierazi (euskara ulertzen duzula eta jaso nahi duzula), **ekin** (ahal eta nahi duzunean euskaraz hitz egin), **jakinarazi** (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko eskatu).



www.euskaraldia.eus



Ana Pozas. AIURRI

"Hizkuntza batek jendea behar du bizitzeko"

ANA POZAS *BELARRIPREST* • URNIETA

"Bizpahiru urte barru *ahobizi* izango naiz"

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Pasa den Euskaraldian parte hartu zenuen? Zein rol aukeratu zenuen?

Pasa den Euskaraldian ere parte hartu nuen, *belarriprest* gisa. Orain gehiago hitz egiteko gai naiz, baina uste dut ez dudala ondo menderatzen. Beraz, *Belarriprest* roletik arituko naiz.

Horrelako ekimenekin gehiago saiaterik naiz euskaraz hitz egiten, telebista ikusten... Apur bat lotsa galtzen da eta animatzen zara euskara erabiltzera.

Aurtengo egoera ikusirik, jendeak berdin-berdin parte hartuko du?

Espero dut baietz. Gauza pila gertatu dira aurtun, baina Euskaraldia zerbait ezberdina eta polita da.

Aurtengo berrikuntza nagusia *Ariguneak* dira, zer diozu?

Jende gehiago batzen da eta praktika handiagoa da. Hizkuntza batek jendea behar du bizitzeko.

Euskaraldiak, gerora begira, hizkuntza ohituretan eragina izan dezakeela uste al duzu?

Uste dut baietz, niri laguntzen dit euskaraz hitz egitera saiaterik.

***Belarriprest* bigarren mailako rol gisa hartu izan da, gehienek *Ahobizi* rolean hartzen dute parte. Zer diozu?**

Aurrekoan lagun batek esan zidan ea aurtun *Ahobizi* izan behar nintzen, baina nahiago dut *Belarriprest* izan. Horrela, jendeak badaki oraindik ez dudala euskaraz ondo hitz egiten. *Ahobizi* rola euskaraz ondo aritzen den jendearekin lotzen dut, baina nik oraindik ez dut guztiz menderatzen. Euskaraz ikasten ari naizela abisatzen diot jendeari, baina adierazteko gai banaiz euskaraz hitz egiten dut. Batzuetan gaztelaniara jotzen dut hobeto azaltzeko.

Hala ere, bizpahiru urte barru *Ahobizi* izango naiz.

"Euskaraldiak ohitura aldaketa ekar dezake"

EIDER MANTEROLA *AHOBIZI* • URNIETA

"Hedabideetan pandemiaren berriek Euskaraldiaren oihartzuna mugatzen dutela iruditu zait"

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Zergatik da garrantzitsua horrela-ko ekimenak egitea?

Txikitatik nire inguruan euskara izan da nagusi, eta etxekoek txiki-txikitatik euskararen aldeko ekimen askotara eramane. Baina sarritan lehen hitza erdaraz egiten dut, eta ez da ohitura egokia. Hori dela eta, uste dut nahiz eta euskaldunak izan guztiok dugula erantzukizuna hizkuntza honi indarra emateko.

Zer ematen du Euskaraldiak?

Ez du askorik ematen egun horietan lanketa egin eta ondoren hori ez badugu mantentzen, baina Euskaraldia ohiturak aldatzeko ekintza egokia dela uste dut. Horren ondoren ohitura aldaketa horiekin lan egiten jarraitzea bakoitzaren erabakia da eta hori da aldatu behar dena. **Jendeak aurtun berdin-berdin parte hartuko duela uste duzu?**

Ez dakit jendeak parte hartuko duen ala ez. Nire ikuspuntutik, orain bi urte ekimen honek oihartzun handiagoa izan zuen; batetik, berria zelako, eta bestetik, ez zegoelako egun dagoen pandemiaren eraginik. Nire kasuan, eskolatik izan dut honen berri, informazio askorik eskuratu gabe. Gainera, hedabideetan pandemiaren berriek eus-



Eider Manterola. AIURRI

karaldiaren oihartzuna mugatzen dutela iruditu zait. Beraz, ez dakit, espero dut, jendeak nik baino informazio gehiago eskuratu eta parte hartu izana.

Aurtengo berrikuntza nagusia *Ariguneak* dira, zer diozu?

Nire kasuan, ikasgela *Arigunea* izango da. Hala ere, ez dute guztiek parte hartuko ekimenean. Horrenbestez, uste dut kasu hori ez dagoela ongi planteatuta. Hau da, *Ariguneak* euskararen lanketa egiteko gunea izan behar dutela uste dut, eta horretarako, modu kolektiboan egin behar da lana, izan *ahobizi* edo izan *belarriprest*. Uste dut ideia oso

ona dela, baina ez dakit kasu guztietan ongi erabilia izango den. Nire gelako kasua adibidez hartuta, behintzat, ez dut uste *Arigunearen* funtzioa bete-ko duenik, era kolektiboan lantzen ez bada.

Euskaraldiak hizkuntza ohituretan eragina dutela uste duzu?

Bai. Horrelako ekimenek ohitura aldaketan kontzientziatzea ekar dezake, baina nork bere lanketa egin behar du ekimenek eragina izan dezaten. Zaila da ohiturak aldatzea, nigandik hasita; izan ere, neu naiz erdaraz hitz egiten didatenei, euskaraz jakinda, erdaraz ez erantzutearen lanketa egin behar duen lehena. Honakoa beste aukera bat izan daiteke ohiturak aldatzen hasteko.

Normalean *Belarriprest* bigarren mailako rol gisa hartzen da, gehienetan. Zer diozu?

Ez dakit zehazki zergatik hartzen den bigarren mailakotzat. Bien rolak dira oso garrantzitsuak. *Belarriprest* batek eragin handia izan dezake *ahobizi* baten lanketan, lehen hitza beti euskaraz egitera bultzatuko baitu hori. Bestetik, *belarriprestari* adierazteko gaitasunean bultzada emateko aukera du *ahobiziaz*, eta kostata bada ere, euskara erabiltzera animatu.



Koldo Tapia. AIURRI

"Euskarak molde eta kolore guztietako ekarpenak behar ditu"

KOLDO TAPIA *AHOBIZI* • URNIETA

"Komunitate txikia gara, azkar batean eta etenik gabe eraldatzen ari den mundu batean. Euskaraldiaren gisako ekimenak euskaldunon erreferente izan daitezke"

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Pasa den Euskaraldian parte hartu zenuen? Zein rol aukeratu zenuen?

Erdaldun berria naiz, euskararekin jaio nintzen eta soldaduska egitera eraman nindutenean nireganatu behar izan nuen gaitelania. Urnietan eguneroko bizitza euskaraz egiten saiatzen naiz, beti erraza ez bada ere. Aurrekoan *Ahobizi* gisa hartu nuen parte, baita aurten ere.

Zergatik da garrantzitsua horrelako ekimenak egitea?

Badirudi, euskararen aldeko ahaleginean, urte askotako elkar ulertu eta konpondu ezin ugari gaitutze bidean jartzen gaituela Euskaraldiak herri ekimeneko elkarteei, erakunde publiko zein pribatuei, baita norbanakoei ere. Baina euskal gizartea aspal-ditik ari da aldarrikatzen eus-

kararen aldeko ahalegin bateratua; euskarak mota eta kolore guztietako ekarpenak behar ditu. Batetik, Euskaraldiaren gisako ekimenak euskaldunon erreferente izan daitezke, eta bestetik, elkarlanera bultzatzen gaituzte, euskararen aldeko ahaleginean.

Zer ematen du Euskaraldiak?

Euskara da euskaldunon nazio-izaeraren ezaugarri nagusiene-tako bat, eta aldarrikapen horren aldeko bidean, Euskaraldiak lanerako tresna izan behar du. Ez da helburua, ez eta marke-tinga egiteko aitzakia ere.

Aurtengo egoera ikusirik, jendeak berdin-berdin parte hartuko duela uste duzu?

Nahiko egoera nahasia da bizi duguna. Eguneroko bizitzan gauza asko mugitu zaizkigu ge-neuzkan lekutik, eta horietako

bat izan daiteke euskararena. Pandemiak ez du parte-hartzea sustatzen lagunduko. Hala ere, begirada beste toki batean pa-ratuko nuke: egitasmoaren par-te-hartzeari dagokionean, pan-demiak adinako zerikusia izan-go du urtean zehar euskararen komunitatea egituratzen eta ahaldunduz egiten den lanak.

Aurtengo berrikuntza nagusia *Ari-guneak dira, zer diozu?*

Euskaldunen komunitatea osa-tzen dugunon arteko ohitura eta inertziak aldatzen joateko lan tresna egokia da, lehenago aipa-tu dudan ahaldundutze bidean.

Euskaraldiak eta tankerako jardue-rek hizkuntza ohituretan eragina dutela uste duzu?

Ezin pentsa genezake gisa hone-tako jardunekin soilik lortu dai-tekeenik euskaldunok egunero-

ko bizitzan oso barneratuak dauzkagun ohiturak, inertziak eta konplexuak aldatzea. Baina lan estrategia zabalago baten barnean lagungarria izan behar du.

Belarriprest bigarren mailako rol gisa hartu izan da, gehienek *Aho-bizi* rolean hartzen dute parte.

Nire ustez, *Ahobizi* askoren au-toadierazpena zein errealtatea baino gehiago, desio baten adie-razle da. Hori berez ez da txarra; horrek esaten digu lanerako indarra daukagula. Baina azter-keta kuantitatibotan gelditu ordez, sakonean arakatu behar dugu egunerokotasunean zer gertatzen den jakiteko: sarritan, estatistikek ematen dituzten *Ahobizi* kopuru horiek ez dira islatzen, urrunik ere, euskararen eguneroko erabileran.

Euskaraldiaren txapak jasotzeko aukera

Arratsalde zehar jarritako mahaira hurbildu behar da txaparen bila


Erredakzioa URNIETA

Ondorengo egun eta orduetan, Lekaioko atarian:

• Azaroak 17, 18, 19: 16:00-19:30.

Banderatxoak

Nahi izanez gero, etxeetako bal-koietan jartzeko banderatzokak eskuratu ahal izateko.



"Hizkuntza batekiko maitasuna adierazteko baliagarria da"

MEHRDAD EBADI *BELARRIPREST* • ANDOAIN
"Aurtengoan ere rol berbera aukeratu dut"

Mikel Arberas ANDOAIN

Pasa den Euskaraldian parte hartu zenuen? Zein rol aukeratu zenuen?
Pasa den Euskaraldian Li den-
dan egon nintzen eta *belarriprest*
gisa parte hartu nuen. Aurtengoan
ere, rol berbera aukeratu dut.

Zergatik da garrantzitsua Euskaraldia?

Hizkuntza batetik maitasuna adierazteko edozein ekimen on-
giatorria da. Modu batera edo
bestera hizkuntzari bultzada bat
emateko balioko du.

Zer ematen du Euskaraldiak?

Esan beharra daukat, ez nago-
la zuzenean Euskaraldian sar-
tuta, baina urte osoan zehar nire
Euskaraldia egiten saiatzen naiz.
Euskaraldia urte osoan zehar
egin behar da eta, nire aukeren
baitan, herritarren batek eus-
karaz hitz eginez gero ulertzen
eta barneratzen saiatzen naiz.

Aurtengo egoera ikusirik, jendeak berdin berdin parte hartuko duela uste duzu?

Pandemiak beste ekimen batzuk
zapuztu dituen bezala, aurtengo
Euskaraldia ez da izango duela
bi urtetan bezala. Neurriak har-
tuta, gauza asko alde batera utzi
beharko dira.



Mehrdad Ebadi. AIURRI

**Euskaraldiak egoera soziolinguis-
tikoan eragiten duela uste duzu?**

Lehen esan bezala, euskara sus-
tatzeko balio duten ekimenak
oso interesgarriak eta garran-
tzitsuak dira.

Normalean belarriprest bigarren mailako rol gisa hartzen da, guztiek Ahobizitzat parte hartzen dute.

Ez dut arazorik ikusten. Herri-
tar askok euskaraz hitz egiten
didate eta nik erdaraz erantzut-
en diet. Honen ostean, erdara-
ra igarotzen dira edo euskaraz
hitz egiten jarraitzen dute. Hori
guztia naturaltasunez eta nor-
maltasunez.

"Pertsona batzuk urte osoan murgilduta daude Euskaraldian"

IHINTZA TELLABIDE • URNIETAKO AEK EUSKALTEGIA
"Euskara ikusgarriago egitea ahalbidetzen du"

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Berritasun batekin dator aurtengo Euskaraldia: Ariguneak.

Interesgarria da, Euskaraldiko
partaideontzat euskaraz lasai
aritzeko guneak izango direlako
eta horien identifikazioan la-
gunduko duelako.


2018an egin zen lehena, eta aurtengo bigarrena da. Nola oroitzen duzu lehen Euskaraldia?

Interesgarria izan zen. *Ahobi-
zientzat* ez zen eroso-erosoa ere
izan, betiko oztopo eta tentsioek
hor zirauteko, baina tira. *Be-
larriprest* rolari dagokionean,
interesgarria eta oso lagungarria
iruditu zitzaidan.

Aurtengoak lehenak bezainbesteko indarra izango duela uste duzu?

Ez nago ziur. Bizi dugun krisi
politiko-sanitarioak ez die bate-
re mesederik egiten hizkuntza
gutxituei, kontrakoa baizik. Hala
ere, oztopoen gainera aurtengo
Euskaraldiaren edizioak ere
arrakasta edukitzea espero dut.
Ahobizi zein Belarriprest rolean aritzeko aukera dute herritarrek. Euskararen sustapenari dagokionean, lehena bezain garrantzitsua izango da bigarren rola, ezta?

Bai, halaxe da. *Belarripresten*
rolak berebiziko garrantzia du,



Ihintza Tellabide. AEK

bai *belarriprestek* beraiek eus-
kara gehiago erabiltzeko, bai
ahobiziek euskaraz egitea ahal-
bidetzeko edo errazteko.

Zer ematen die herritarrei Euskaraldiak?

Alde batetik, euskararen erabi-
lera errealtate buruz hausnar-
tzeke aukera ematen du. Horrez
gain, euskara ikusgarriago egi-
tea ahalbidetzen du, baita gehia-
go erabiltzeko aukera eman ere.
Euskaraldiak hizkuntza ohituretan eragina duela uste duzu?

Irauten duen egunetan, bai.
Hortik kanpo, ez dakit eragin
handirik ote duen, egia esan.

Pertsona batzuk urte osoan dau-
de Euskaraldian; beste batzuk,
ordea, ez zoritxarrez. Euskaral-
diak irauten duen bitartean,
ahalegin kontziente bat egitea
eskatzen du egitasmo honek, eta
hori ona da berez, nahiz eta urte
osoan ez iraun.

**Zergatik da garrantzitsua horrela-
koak egitea?**

Erabileran zentratuko diren
egitasmoak ezinbestekoak dira
euskararentzat. Hor dago gurea
bezalako hizkuntzen biziraupe-
nerako gakoa.

Bizimodua goitik behera aldatu duen COVID-19 birusak euskarari ere eragin dio?

Bai, noski, zalantzarik gabe.
Negatiboki eragin dio. Adminis-
trazioan, hezkuntzan, haurren
eta euskara-ikasleen ezagutzan,
jendeak kontsumitzen dituen
edukietan, jarraitzen dituen
komunikabideetan eta abarretan
nabaritu da euskararen presen-
tziaren jaitsiera hori, euskararen
pisuaren galera.

Koronabirusaren aitzakian
ezarri nahi den errealtate ber-
rian, sistema sozioekonomiko
globalizatuan, euskara bezalako
hizkuntza gutxituek geroz eta
toki txikiagoa dute, edo, zuzene-
an, batere tokirik ez dute.
Luze eta zabal aztertzeke mo-
duko gaia da honako hau. Egoe-
ra kontu handiz aztertzeke mo-
dukua da, beraz.

Eta Euskaraldiari?

Eragin, eragingo dio; ikusiko
dugu nola.



ERALDAKETA
DIGITALEAN
BEHAR DUZUN
BIDELAGUNA

Martin Ugalde, Kultur Parkea
20140 Andoain
943 304 315 - info@izt.eus
www.izt.eus



Urnietako
udala



andoaINDARRA
euskaraz

Gazte Lokalaren hogeigarren urteurrena

Andoaingo Udal zerbitzua efemeride borobilerira iritsiko da, Euskaraldiaren hasierarekin batera. Haur eta gaztetxo askoren kabi izan den eta izango den Gazte Lokala zabaldu zutela 20 urte bete dira. Ez da urte erraza izaten ari, baina ez da alde batera utzi behar ere Gazte Lokaleko langileek egitasmoari ditzira emateko egin duten ahalegina. Euskaraldian *Arigunea* izango da, eta asteburu honetan ospakizuna bikoitza izango da: Euskaraldia eta urteurrena. Zorionak eta etorkizun oparoa izan ezazuela!



Ospakizunak asteburu honetan, Andoaingo Gazte Lokalaren eskutik:

- Azaroak 21, larunbata: Ping-pong txapelketa.
- Azaroak 22, igandea: Kustomizazio tailerra.

“Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia”

Danobatgroup kooperatiba taldeko enpresen lehiaketa berria, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira

Erredakzioa ANDOAIN

Danobatgroup industria taldea makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan espezializatuta dago eta Danobatgroup kooperatibaz gain Danobat, Goiti, Soralue, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Taldeko enpresak kokatuta dauden ingurune soziolinguistikoari begiratuz eta kooperatiben izateko era eta konpromisoari jarraituz, lema dioen moduan, euskara da batzen gaituen esentzia hori eta euskarak arlo guztietan presentzia izateari ematen ari zaio garrantzia azken urteetan. Presentzia eguneroko lanean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan, ikerketa eta garapenean...

Baina egunerokotasunetik haratago, gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi zaio Danobatgroupetik eta presentzia izatera bideratu batzen gaituen hori.

Danobatgroupek harreman-sare zabala du, eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du. Horren adierazgarri, taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak, eta,

lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Aurten, aurreko urteetako bideari jarraipena emanez Danobatgroupek lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke taldeko euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez euskararen eguneko hurrengo lehiaketaren bidez.

Gainera, aurten Euskaraldia ekimenarekin bat egin dute erakunde moduan taldeko kooperatiba guztiek eta erakunde moduan izena emateaz gain *Ariguneak* sortu eta *ahobizi* eta *belarriprest* rolen izen ematean ere lagunduko da kooperatibetan bertan.

Lehiaketan parte hartzeko ondorengo helbidean sartu behar da: info.danobatgroup.com/eus-kara/lehiaketa-2020.html.

Aurtengo ariketak euskararen inguruan hausnarketa bideratuko du. Dena den, industria arloan euskararen erabilera laguntzen duen hitz tekniko osatutako hiztegiaren eskura dagoela gogorarazi nahi dugu: www.danobatgroup.com/eu/eus-kara eta hiztegiaren sartzeko hitz berriren bat proposatzeko aukera ematen duela.

Azaroaren 30era arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, abenduaren 3an irten-go da irabazleen izena eta parte-hartzaile guztien artean Errigorako hainbat saski zozkatuko dira.



HEDABIDEKIN
ERE BAI



AIURRIKO
HARPIDETZA
KANPAINA



Harpidetza egiteko,
Aiurri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko
harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

*OHARRA: Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar.
Tarte hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago

Tel.: 943 575 293 [urrats2010](https://www.instagram.com/urrats2010)

10 urte!

Urrats
inprimategia

Abenduan otar hau zozkatuko dugu

Eskerrik asko urte hauetan guztietan bidelagun izan zaituztegun!

COVID-19 oharra
ESKAERAK AURREZ: Edozein dokumentu inprimatzeko bidali mesedez:

688 61 85 48 - urrats@urratsinprimategia.com

DANOBATGROUP

HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi Errigora ekimenak sortutako bi saski beltz!

<https://info.danobatgroup.com/eus-kara/lehiaketa-2020.html>

*Parte hartzeko azken eguna: 2020ko azaroak 30, 00:00

Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia

DANOBATGROUP KOOP E. | DANOBAT KOOP E. | GOIMEK KOOP E. | GOITI KOOP E. | IDEKO KOOP E. | LATZ KOOP E. | SORALUCE KOOP E.

"Eguzkiak iraun bitartean"

Joan zen asteburuan 20.000 euro pasatxo bildu zituen Aritz Egeak, Super H eta Baila Con EM elkarten alde

Andoni Urbistondo URNIETA

Super H haur minbizia eta Baila Con EM esklerosi anizkoitz gaitzen ikerketa sustatzen duten elkarteei zuzendutako ekimena izan zen larunbatekoa. Aritz Egea mendi korrikalari urretuarrak ekimen solidario berezia burutu zuen, Ezkio eta Urretxu arteko parajeetan. Izazpi tontorreraino joan etorrian aritu zen egun osoz, 'Eguzkiak iraun bitartean' ekimenaren barnean. Alegia, eguzkia irten zenetik gorde zen arte aritu zen lasterka. Ezkion hasi eta bukatu, itzuli bakoitzak 12 kilometro luze eta 750 metroko desnibel positiboarekin. 7 itzuli oso eman zituen, gauak egunari tartea jan zion arte. Ekimena larunbatean egin zen, baina ekimen solidarioa askoz lehenago hasi zen. Hainbat kirolari eta kirol elkarte musu truk emandako materiala eskuratzeko zozketa antolatu zuten, eta jendeak erruz parte hartu du. Materiala eman dutenen artean kirolari ezagun asko

egon dira: hala nola, Kilian Jor-net, Alex Aranburu, Markel Irizar, Gari Bravo, Pou anaiak, Alex Txikon eta hainbat. Diru hori haur minbizia eta esklerosi anizkoitza ikertzeko bideratuko da oso-osorik. Egeak kideen laguntza eskertu du, batez ere Jor-netena: "Ikaragarria izan da bere laguntza: materiala emanez, bere sareetan ekimena zabalduz..."

Super H elkartearen eskertza

Igandekoa gogoratzeko izango dela dio Almu Salas urnietarrak, "baldintzak hoberenak izan gabe ere, ero-altruista talde txiki batek egin ezin duenik ez baitago". Diruari baino beste balore batzuei ematen die garrantzia: "Diru asko bildu zen, baina eskuzabal-tasunean, talde lanean eta elkar-tasunean askoz gehiago bildu zen. Eskerrik asko Aritz, eta zure ondoan egon zen talde ikaragarriari, geurea bezalako elkarte txikiei ikusgarritasuna emateagatik".

'Ni ere ostalaria naiz'

Hainbat produktu emango dituzte musu truk, eta 37 sari banatuko dira Gabonetako loteriarekin

Andoni Urbistondo URNIETA

Urnietako merkatariek ekimen polita abiatu dute, tabernak ireki ezin dituzten ostalariei laguntzeko. Herriko 42 komertziok hainbat produktu emango dituzte musu truk, eta herritar orok

horiek eskuratzeko aukera izango du, pauso bakarrean: zozketak erosita. Zozketak salgai daude dagoeneko irekita dauden herriko dendetan, euro baten truke. Gabonetako loteriarekin batera zozkatuko dira produktu guztiak.

HITZORDUAK

AGENDAN AGERTZEKO: Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 19

ANDOAIN Erakusketa

Miren Barrena, Leire Lacunza Miranda eta Ibon Landa Amutxategi. **Bastero. Erakusketa gela.**

OSTIRALA 20

ESKUALDEA Euskaraldia

Euskara erdigunean jartzeko bigarren ariketa kolektiboa. *Ahobizi* eta *belarriprest* aritzeko egunak dira. *Ahobizi* edo *belarriprest* txapak eskuratzeko Azken egunak dira. Informazio zehatza astekariko 6. eta 11. orrialdeetan. **Abenduaren 4ra bitarte.**

ANDOAIN Dantza

"The big game" dantza ikuskizuna. Obraren oinarrian, koreografia espaziala dago, gorputz asko bizi dira batera, eta mugitzen den sistema kolektibo bat eratzen dute. **19:00 Bastero.**

LARUNBATA 21

ANDOAIN Zinema

Bastero Kulturgunean, haurrentzat eta helduentzat emanaldi bana. **16:30 StarDog & TurboCat. 19:00 El palacio ideal.**

URNIETA Kontzertua

Izaki Gardenak musika taldearen emanaldia, Poxta Zahar gazte elkartearen eskutik. **19:00 Sarobe.**

IGANDEA 22

URNIETA Kontzertua

Garikoitz Mendizabal txistulariaren eta German Ormazabal piano jotzailearen kontzertua. **19:00 Sarobe.**

ANDOAIN Zinema

Bastero Kulturgunean. **16:30 StarDog & TurboCat. 19:00 El palacio ideal.**

ASTELEHENA 23

ANDOAIN Zinema

Bastero Kulturgunean. **19:00 El palacio ideal.**

ASTEARTEA 24

ANDOAIN Dokumentala

"Gu guztion historia". **19:00 Bastero Kulturgunea.**

ASTEAZKENA 25

ANDOAIN Omenaldia

Indarkeria matxistaren aurkako egunean, omenaldi ekitaldia. **19:00 Bastero Kulturgunea.**

OSTEGUNA 26

ANDOAIN Sari banaketa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien sari banaketa ekitaldia. **19:00 Bastero Kulturgunea.**

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 21, igandea 22


Pajares: Zumea kalea, 20. 943 592 629. Andoain.

URNIETA

Larunbata 21, igandea 22

Tena: Kale Nagusia, 16. 943 543 718. Astigarraga.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Ekiñe
Azaroaren 17an 11 urte! Zein azkar pasatzen den denbora amazona! Muxu handi bat.

ODOL-EMAILEAK

URNIETA

Azaroak 25, ostirala

Azken hilabeteetan bezala, ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua hartzea. **16:30-20:30 Lekaio.**

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Frantseseko klaseak ematen ditut: EOI diploma, mintza-praktika... **693 692 823 - 665 719 827**

9 urteko haurrak, **ukelelea** ikasteko eskolak hartuko lituzke, Andoain. **650 341 108**

SALGAI

Aluminiozko aroztetikoko lokala eta makineria salgai edo alokagai. **651 70 73 43.**

Etxebizitza argitsua salgai lurako plazan, 3 logela, 2 komun eta

sukalde-egongela. igogailuarekin. Zatoz ikustera. **666 62 30 79**

Volkswagen Passat 1.6 Diesel 110cv 2014koa salgai, 172.000 km. Prezio ona. 659 848 574

ALOKAGAI

2 logelako pisua alokairuan Andoain, Goiburu auzoan. 600 euro. **600 374 510.**

MERKATU TXIKIA: diseinua@aiurri.eus Whatsapp: **619163537**

ESKELA

Jose Antonio Arocena Goenaga 'Txena'

Andoain hil zen 74 urte zituela, 2020ko azaroaren 13an



"Adiskidetasunean eskuzabal, lagunarte handia osatu zenuen gure artean. Beti izango zaitugu gogoan, Txena"



Ontza elkarte lagunok

Andoain, 2020ko azaroaren 16an

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri: Ebeze etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugartemendia.

idezkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.

publizitatea@aiurri.eus

Banataleak: JM Sagaseta (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus

Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 9.700 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESA:



ANDOAINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hidantza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIA:



AIURRI ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN EZ ZAITEZ IKUSLE HUTS BAT IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



**ANDOAINGO
UDALA
EUSKARALDIAREKIN
BAT**

EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik
abenduaren 4ra

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik
abenduaren 4ra

**Zenbat pozten garen euskaraz
hitz egiten diguzuenean.**

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan